

Nola saltzen digute jaten duguna



JUSTIFIKAZIOA

Elikadura-produktuen publizitateak estrategia asko erabiltzen ditu erakargarri egiteko, osasungarriak eta naturalak diren itxura emateko. Garrantzitsua da estrategia horiek ezagutzea eta etiketak irakurtzen jakitea, behar bezala interpretatzeko eta publizitateak bakarrik ez eragiteko.

HELBURUAK

- Jarrera kritikoa sortzea elikagaien publizitate-mezuen aurrean.
- Etiketen irakurketa eta interpretazioa sustatzea, erosten ari garen produktuaren informazio objektiboa kontrastatzeko eta ezagutzeko bitarteko gisa.

EDUKIAK

- Elikagaiak saltzeko erabiltzen diren publizitate-estrategien ikuspegi kritikoa.
- Elikagaiei buruzko informazio objektiboa:
 - Elikagaien nahitaezko etiketatzea
 - Dieta orekatua: mantenugaiak, funtzioak
- Informazio subjektiboa vs. Informazio objektiboa.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Elikagaien analisia, haien aurkezpena kontuan hartuta. Zer hartzen duzu kontuan produktu bat aukeratzeko orduan?

GARAPEN FASEA (saioa)

- Gosaltzeko produktuak aukeratzea.
- Modu kritikoa kontsumitzen ikasten.
- Gosariari berriro ekinez.
- Ondorioak.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Ikasitakoa aplikatuz. Gauza bera aukeratuko zenuke?

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.

METODOLOGIA

- Banakako lana.
- Lankidetzeta-lana.
- Kasuen azterketa.
- Lan kooperatiboa.
- Elkarrizketa-ikaskuntza.
- Thinking based learning.

ANTOLAKUNTZA

* IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Ordenadorea. Pantaila digitala edo proiektorea eta kanoia. Interneterako sarbidea.	Gela bat. Gehienez 5 pertsonako azpitaldeak.	90 minutu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.